

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Bezeroak gure negozio-ereduaren funtsa da, haiek gabe ezin baitugu gure enpresa luzaro iraun. Gure enpresako segmentazioa bi multzotan banatzen da.

Alde batetik, gazteak daude, hauek beharrezkoak dira gure enpresarako zeren eta enpresak lana bilatzen hari diren jendea behar baitu. Gure segmentua gazteetan oinarritzen da, beraiek lana bilatzeko zailtasunak izan ohi dituztelako, gehien bat, esperientzia faltagatik. Gaztelan esker, gazteek lana lortuko dute eta beste pertsoneri lagunduko diete.

Beste aldetik, gure proiektua edozein zerbitzu edota ondasun behar dutenei bideratuta dago. Gazteek enplegua bila dezaten, beharrezkoa da gazteen lan-eskaintza onartzen duten edo gazteak lanerako bilatzen dituzten pertsonak egotea. Beraz, gure bezero talde, gazteez gain, enpresak eta aitona-amonak izan ohi dira. Azken hauek zailtasun fisikoak edo psikikoak izan ohi dituzte, hortaz, eguneroko lanak egitea erraztuko dien pertsona bat bilatu nahi lukete.